

JUAN ANJEL GOGOAN

Patuak, destinoak, beltzez idatzizuen iazko abuztuaren 30a. Berehala ulertu genuen ilunpe haren mezua. Lezoko dantzarion bihotzak lausotu egin ziren eta saminak amorruzko irrintziak, malko gaziak eta ezina eragin zituen gudan.

Egun batzuk joan dira zure agur isil eta apala entzun genuenetik. Orain oroimenean arakatzea beste aukerarik ez dugu zurekin igarotako unez gozatzen.



Gogoratzen al dituzu, Juan Anjel, dantzan elkarrekin egindako urratsak, solasaldiak eta ametsak? Gogoratzen al dituzu Iturengo bordako algarak, autobusetan abestutako kantuak, herriko jaietako afariak...?

Une guzti horiek gogoratzen ditugunean zure aurpegi alai eta irrafartsua dakusagu, ilusioz eta maitasunez betetako pertsonaren aurpegia. Eta horrekin aski dugu. Irri horren esanahia barru-barruan xixelatu diguzu.

Ondotik oharkabeen joan zintzaizkigun eta kasik ez genuen agur-gero arte lasai bat esateko betarik izan. Santakrutzetan ere itzela izango da utzi duzun hutsunea baina, hala ere, ez dugu negarrik egingo, horrelaxe nahiko bait zenuke zeuk.

Zure izanak eta irriak dantzara bultzatuko gaituzte beti eta banakoaren doinuaz aire Juan Anjel! esango, dugu garai haietan bezalaxe, oilolarruak sortarazten duen zirrararen indarrak.

Zenbaitzuk utzitako arrasto tipia ez du inoiz denboraren joanak ezabatuko. Agur eta ohore zuri, JUAN ANJEL UHALDE ABAITUA.

MUNTTAR